



KALITATE EGITASMO INTEGRATUAN (KEI) OINARRITUTAKO AUTOEBALUAZIO GIDA



Kalitate Egitasmo Integratua

PROTOKOLOA

1. Galdesortaren bakarkako erantzuna

Ondoren aurkezten den galdesorta ataletan sistematizaturik dago. Kalitatearen barruan sei eremu bereizi dira eta eremu bakoitzean zenbait kalitate irizpide zehaztu dira. Galdesortako atalak irizpide horiei dagozkie. Aldi berean, kalitate irizpide bakoitza item multzo batekin batera aurkezten da, item horiek ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea definitzen duten arrakasta faktore kritikoak zehazten dituztelarik. Ebaluazio taldeko kide bakoitzak galdesorta hau bakarka erantzun beharko du autodiagnosi saioaren aurretik, jarraian azaltzen diren argibideak kontuan izanik.

2. Puntuaziorako argibideak

Item moduan aurkeztutako adierazle bakoitzean bost erantzun-aukera daude, ikastetxean zenbateraino betetzen den 0tik 100era baloratzeko. Erantzun-aukera horietatik bat hautatu beharko duzu eta dagokion zenbakia aldameneko gelaxkan idatzi. Hona hemen erantzuteko aukerak azalduta:

0 *Adierazlea ikastetxeko bizitzan ez da inoiz agertzen. Ez dago horren zantzurik.*

25 *Zantzu edo asmoren bat badago. Maila kontzeptualean onartzen bada ere, adierazleak ez dauka islapen praktikorik, nahiz eta ikastetxeko dokumentuetan jasota egon litekeen.*

50 *Adierazlea oro har hedaturik dagoela agertzen duten erakusleak azaltzen dira, sistematikoki aplikatzen ez bada ere.*

75 *Adierazlea ikastetxeko bizitzan agerikoa dela frogatzen duten erakusle argiak azaltzen dira. Era orokorrean eta sistematikoki burutzen da, nahiz eta kide guztiek ez onartu.*

100 *Adierazlea erabat hedatu da ikastetxean eta bertako kulturaren parte izatera heldu da.*

3. Talde puntuazioetarako argibideak

Behin galdesortak bakarka erantzunda, emaitzak ebaluazio-taldearen aurrean aurkeztu behar dira. Ebaluazio-taldea bost kidek baino gehiagok osotzen badute, hiru, lau edo bost laguneko taldeetan banatuko da.

Talde-puntuazioaren helburua guztiek edo behintzat gehienek onartutako emaitzak negoziatzea da. Negoziazioa errazteko, + - 25 deritzon metodo hau proposatzen dugu:

1. Bakarkako puntuazioak gehitu, eta batuketa horren emaitza bakarka ebaluatu duten partaide kopuruaren artean zatitzen da, taldeko batez besteko puntuazioa (emaitza globala) lortzeko.
2. Ebaluazio-taldearen batez besteko puntuazioaren eta bakarka emandako puntuaziorik altuenaren edo baxuenaren arteko aldea 25 baino txikiagoa bada, ez dago negoziatu beharrik.
3. Ebaluazio-taldearen batez besteko puntuazioaren eta bakarka emandako puntuaziorik altuenaren edo baxuenaren arteko aldea 25 baino handiagoa bada, adostasunera iritsi arte negoziatu beharko da, ikastetxearen eginkizunean eta ikuspenean oinarritutako argudio sendoak emanez, errealitatea gehiengoak ez bezala hauteman duten pertsonak limurtzeko.

Adibideak:

- Taldea bost lagunek osatzen dute. Item bati emandako bakarkako erantzunak ondorengoak dira: 50-30-65-20-50. Taldearen batez bestekoa, hortaz, honako hau da: $215:5 = 43$. Partaideek emandako puntuaziorik altuenetik (65etik) eta baxuenetik (20tik) batez bestekora (43ra) dagoen aldea 25 puntukoa baino txikiagoa denez, batez bestekoa taldearen emaitzatzat onartzen da eta beste item batera pasatzen da.
- Taldeko kideek ondoko erantzun hauek eman dituzte: 10-0-75-85-25. Batez besteko puntuazioa: $195:5 = 39$. Emaitza global hau (39), partaide batek emandako 0tik eta beste partaide batek emandako 85etik, 25 puntu baino gehiago aldentzen denez, negoziatu egin behar da muturreko emaitzak batez bestekora hurreratu eta akordio batera iristeko.

4. Arlo sendoak eta hobetu beharreko arloak zehaztea

Kalitate irizpide bakoitzeko adierazleak taldean negoziatu eta gero, arlo sendoak eta hobetu beharrekoak aterako dira taula batera. **75** puntutik gora jaso duten adierazleak arlo sendotzat joko dira. Taulan, adierazlearen ondoan, taldeko partaide guztien iritziz adierazle hori ikastetxeko bizitzan eta funtzionamenduan gertatzen dela frogatzen duten erakusgarriak azalduko dira.

40 puntutik behera jaso duten adierazleak hobetu beharreko arlotzat joko dira. Adierazle horiek taulara eramango dira eta ebaluazioan parte hartu ez duten klaustrokideek onartzeko moduko arrazoiak erantsiko dira.

5. Hobetu beharreko arloetan lehentasunak jartzea

Galdesortaren bidezko diagnostia amaitutakoan, hobetu beharreko arlo kopuru harrigarriarekin aurkituko gara seguruenik. Guztiei aldi berean erantzutea ezinezkoa izango litzatekeenez, lehentasunak jarri beharko dira, taldean erabakiak hartzeko talde-dinamikaren bat erabiliz. Metaplana, Elur Bola, Diamantea etab. bezalako teknikak lagungarri gerta daitezke.

Arloak lehenesten hasi aurretik, garrantzitsua da arlo batzuk beste batzuen aurretik hautatzeko orduan denok aintzat hartu beharreko irizpideren bat finkatzea. Esate baterako, ondorengo hauek izan litezke lehenesteko irizpideak: garrantzia, beharrezana edo premia larria. Eginkizunari eta ikuspenari buruzko dokumentuetan oinarritutako arrazoibideak ere erabil litezke.

1. EREMUA

ERAKUNDEAREN PLANTEAMENDUAK

Eremu hau ikastetxeko kultura formalari dagokio. Etorkizuneko erakunde batean kontuan hartu beharreko hiru ezaugarri nagusi ukitzen ditu: eginkizuna, ikuspena eta balioak. Aldi berean, dokumentu instituzionaletan –idearioan, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, ikastetxearen ikasketa-proiektuan eta zuzendaritza-proiektuan– zehaztutako arrakasta faktore kritikoak ere hartzen ditu.

1.1. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeak gidari izan behar dituen eginkizuna, ikuspena eta balio nagusiak definiturik dauzka.

- 1.1.1. Zuzendaritza taldeak definitua du ikastetxearen etorkizuneko ikuspena eta eskola elkarteak badu horren berri.
- 1.1.2. Ikastetxeak bere eginkizuna definitu du aparteko dokumentu batean.
- 1.1.3. Irakasle gehienek ikastetxearen eginkizuna eta ikuspena ezagutu, onartu eta garrantzizko ikusten dituzte.
- 1.1.4. Ikastetxeak argi definiturik dauzka garrantzitsu deritzen balioak.
- 1.1.5. Ikastetxeko pertsonalak bere egiten ditu Idearioan eta/edo Hezkuntza Proiektuan definitutako balioak eta printzipioak.
- 1.1.6. Hezkuntza elkarteak (gurasoak, irakasleria, ikasleria, administrazio eta zerbitzuetako langileak) konpromiso argia, aktiboa eta arduratsua dauka euskal hizkuntza eta kulturaren transmisio, garapen eta indartzean.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
1.1.1.							
1.1.2.							
1.1.3.							
1.1.4.							
1.1.5.							
1.1.6.							

1.2. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeak dokumentu instituzionalak definiturik dauzka.

- 1.2.1. Ikastetxeak, nortasuna eta izaera ematen dion Hezkuntza Proiektua definiturik dauka.
- 1.2.2. Curriculum-diseinuek hezkuntza-proiektuan aipatzen diren balioak lantzen dituzte.
- 1.2.3. Ikastetxeak, ikasleen hezkuntza premiei erantzuten dien curriculum-proiektu egituratu, orekatu eta planifikatua dauka.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
1.2.1.							
1.2.2.							
1.2.3.							

1.3. KALITATE IRIZPIDEA

Zuzendaritza taldeak zuzendaritza-proiektu propioa du ikastetxea kudeatzeko.

- 1.3.1. Ikastetxeari izaera eta nortasun propioa ematen dion zuzendaritza-proiektu bat dauka, zuzendaritzak.
- 1.3.2. Zuzendaritza-proiektuak, ikastetxeko Idearioaren ardatz diren balio eta printzipioak jasotzen ditu.
- 1.3.3. Zuzendaritza taldeak, aldizka, zuzendaritza proiektuaren kontuak ematen dizkio eskola-elkarteari.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
1.3.1.							
1.3.2.							
1.3.3.							

2. EREMUA

ANTOLAKUNTZA EGITURAK

Eremu hau ikastetxeko jardunbideari dagokio. Ikuspegi formaletik, jardunbide hori egitura batzuen bitartez gauzatzen da: klaustroa, departamentuak, koordinazio pedagogikorako batzordea, eskola kontseilua eta zuzendaritza taldea. Egitura horiek eta euren funtzioak, zuzendaritza taldearekin batera nolabaiteko aitzindaritza betetzen duten pertsonak eta baliabideak egokitu eta ikastetxearen funtzionamendua errazten duten gainerako arduradunak sartzen dira eremu honetan.

2.1. KALITATE IRIZPIDEA

Aitzindaritza konpartitua argi eta garbi betetzen duen zuzendaritza taldea dago.

- 2.1.1. Zuzendaritza taldeak zenbait eginkizun klaustroko beste kide batzuekin batera egiten ditu edo haien esku uzten ditu.
- 2.1.2. Zuzendaritza taldeak feed-back maila altua eskaintzen die irakasleei, informazio trukea bultzatzen du eta kultura horrek erraztu egiten du erabakiak hartzea ikastetxeko kudeaketa-arlo guztietan.
- 2.1.3. Zuzendaritza taldea hezkuntza-prozesua etengabe aztertzeaz eta helburuetara iristeko aurrerabidea ebaluatzeaz arduratzen da.
- 2.1.4. Zuzendaritza taldeak baliabide teknologiko, funtzional eta materialak eskaintzen dizkie irakasleei lanean gustura jardun dezaten.
- 2.1.5. Zuzendaritza taldeak hezkuntzan zeresana duten pertsona guztien artean, goitik behera, behetik gora zein maila berean komunikatzeko bide errazak jartzen ditu.
- 2.1.6. Zuzendaritza taldeak mekanismo egokiak ezartzen ditu ikastetxean egiten diren bilerak eraginkorrak izan daitezen.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
2.1.1.							
2.1.2.							
2.1.3.							
2.1.4.							
2.1.5.							
2.1.6.							

2.2. KALITATE IRIZPIDEA

Irakasleak ikastetxeko bizimoduan inplikaturik sentitzen dira, elkarrekin lan egiten dute eta agerikoa da lanean gustura daudela.

- 2.2.1. Irakasleak oso inplikaturik daude hezkuntza-helburuak lortzeko ahaleginean.
- 2.2.2. Ikastetxeko erabakiak hartzeko orduan inplikazio (partaidetza) handia dago hezkuntza elkartearen aldetik (gurasoak, irakasleria, ikasleria eta adiministrazio eta zerbitzuetako langileak).
- 2.2.3. Irakasleak ikastetxean planteatzen diren hobekuntza egitasmoetan parte hartzeko eta laguntzeko motibatuta daude.
- 2.2.4. Irakasleek zerbitzu eta administrazio langileen laguntza dute eguneroko zereginetan.

- 2.2.5.** Irakasleek badakite zuzendaritza taldeak onartu eta bultzatzen dituela ikastetxeko egituretan hartzen diren erabakiak.
- 2.2.6.** Zuzendaritza taldeak modu malgu eta egokian erantzuten die irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileen gaurkotze eta formazio premiei.
- 2.2.7.** Ikasleekin, familiekin edo administrazioarekin arazoak dituztenean, irakasleek zuzendaritza taldea haiekin dagoela sentitzen dute, oro har.
- 2.2.8.** Irakasleek zuzendaritza taldeak euren ahaleginak eta arrakastak aintzat hartzen dituela sentitzen dute.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
2.2.1.							
2.2.2.							
2.2.3.							
2.2.4.							
2.2.5.							
2.2.6.							
2.2.7.							
2.2.8.							

2.3. KALITATE IRIZPIDEA

Zuzendaritzak (zuzendaritza taldea, departamentu buruak eta koordinatzaileak) malgutasun, motibazio eta eraginkortasun irizpideei jarraituz antolatzen du irakas-ikaste prozesua.

- 2.3.1.** Ikasgelako programazioak eta ikastetxean dauden laguntza zerbitzuak koordinatu egiten dira.
- 2.3.2.** Antolaketaren aldetik badira zenbait estrategia ikaskuntzan arazoak dituzten ikasle taldeei laguntza emateko.
- 2.3.3.** Ikasleen taldeak malgutasunez antolatzen dira premia eta gaitasun desberdinei modu egokian erantzun ahal izateko.
- 2.3.4.** Zuzendaritza taldeak orekaz eta irizpide pedagogikoen arabera banatzen ditu ikasle arazotsuak maila bereko taldeen artean.
- 2.3.5.** Ikasle eta irakasleen ordutegiak, irizpide profesionalen arabera antolatzen eta kudeatzen dira, irakasleen interesak, helburu pedagogikoak eta ikasleen hezkuntza premiak aintzat hartuta.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
2.3.1.							
2.3.2.							
2.3.3.							
2.3.4.							
2.3.5.							

2.4. KALITATE IRIZPIDEA

Zuzendaritza taldeak egitura batzuk besteekin artikulatzen ditu, era honetan talde lana eta lankidetzaz ziurtatuz.

- 2.4.1.** Erabakiak hartzeko prozesuak parte hartzekoak dira eta jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoen bidez garatzen dira.
- 2.4.2.** Erabaki gehienak negoziatuz eta adostasunez hartzen dira.
- 2.4.3.** Koordinazio prozesuak ziurtatzeko, ziklo edo departamentuko irakasleen bilerak egiten dira maiz.
- 2.4.4.** Egitura bakoitzeko arduradunek erabakiak hartzeko era demokratiko eta negoziatua bideratzen dute, eta jarraipena egiten dute hartutako erabakiak bete daitezela.
- 2.4.5.** Klaustroaren bilerak ondo zuzendurik eta koordinaturik daude eta kide guztien parte-hartzea bultzatzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
2.4.1.							
2.4.2.							
2.4.3.							
2.4.4.							
2.4.5.							

2.5. KALITATE IRIZPIDEA

Irakasleek eraginkortasunez lan egiteko adina baliabide teknologiko, funtzional eta material daukate.

- 2.5.1.** Departamentuek euren funtzionamendurako material egokia dute eta komunikazioko teknologia berriak (internet) erabili ahal dituzte.
- 2.5.2.** Ikastetxeko liburutegiak ikasleei operatiboa eta interesgarria suertatzeko adinako azpiegitura dauka.
- 2.5.3.** Baliabide teknologiko, material eta pertsonal egokiak daude ikasle guztien premiei erantzuteko.
- 2.5.4.** Dokumentazio gunea antolatze eta hezkuntza eta teknologiko baliabideak operatibo mantentzeko pertsonal espezializatua dago.
- 2.5.5.** Ikastetxeko ikasgelek itxura atsegina dute.
- 2.5.6.** Ikasgeletan ekipamendu teknologikoa dago, ikas-irakaste prozesuaren eraginkortasuna areagotzeko.
- 2.5.7.** Irakasleek aldizka informazioa eta prestakuntza jasotzen dute teknologia berrien funtzionamenduan egunean jartzeko.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
2.5.1.							
2.5.2.							
2.5.3.							
2.5.4.							
2.5.5.							
2.5.6.							
2.5.7.							

2.6. KALITATE IRIZPIDEA

Baliabideak eskuratzeko eta erabiltzeko egiturak ondo zehaztuta daude.

- 2.6.1. Ikastetxeak berriazko aurrekontua dauka teknologia berriak eta material didaktikoa mantentzeko eta gaurkotzeko.
- 2.6.2. Zuzendaritza taldeak erabileraren eta ikas-irakaste prozesuan izandako eraginaren ebaluazioaren arabera jartzen ditu baliabide teknologikoak.
- 2.6.3. Jarritako baliabideen eragina ebaluatu egiten da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
2.6.1.							
2.6.2.							
2.6.3.							

3. EREMUA

HARREMAN ETA ELKARBIZITZA SISTEMA

Eremu honetan honako hauek sartzen dira: giza harremanak, elkarbizitza eta diziplina, ikastetxeko komunikazio eta informazio sistemak, eta erakundeko eta ikasgelako giroa.

3.1. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxean sumatzen den giroak eskola-elkarteko kide guztien arteko harreman eraikitzaileak eta lana bultzatzen ditu.

3.1.1.	Hezkuntza elkartea oso konprometituta dago ikasleen hezkuntzarekin eta ikas-irakaste prozesuarekin.	
3.1.2.	Irakasleak harro sentitzen dira ikastetxeko partaide izateaz.	
3.1.3.	Irakasleen artean lankidetzeta handia dago eta talde espiritua sumatzen da.	
3.1.4.	Ikastetxeak, estamentu ezberdinen arteko elkarraldi eta harreman onak bideratzeko egitasmo eta jarduerak bultzatzen ditu.	
3.1.5.	Hezkuntza elkarreak, bere elkarbizitzaren oinarri gisa definitutako balioak adosturik dauzka.	
3.1.6.	Hezkuntza elkarreak elkarbizitzari buruzko gaien prestakuntza jasotzen du.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa	Eraitza globala	Eraitza adostua
3.1.1.			
3.1.2.			
3.1.3.			
3.1.4.			
3.1.5.			
3.1.6.			

3.2. KALITATE IRIZPIDEA

Zuzendaritzak bereziki zaintzen ditu ikastetxeko elkarbizitza harremanak.

3.2.1.	Irakasleek ahalik eta eskola-denbora gutxien erabiltzen dute funtzionamendu arauak betearazteko.	
3.2.2.	Ikastetxeko zuzendaritza sentibera da eta gatazkak sortzen direnean, bitartekotzarako guneak sortuz parte hartzen du.	
3.2.3.	Ahalegina egiten da langileek maila pertsonalean zein profesionalean eurekin zerikusia duten erabakietan esku har dezaten.	
3.2.4.	Ikastetxeak gainbegiraketa-mekanismoak dauzka Barne Araudiko arauak bete daitezen laguntzeko.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa	Eraitza globala	Eraitza adostua
3.2.1.			
3.2.2.			
3.2.3.			
3.2.4.			

3.3. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeko pertsonal guztia era aktiboan inplikatzan da ikasleen gizarteratze prozesuan.

- 3.3.1.** Ikasle eta irakasleen artean konfiantza eta errespetuzko giroa dago.
- 3.3.2.** Ikasleak gustura sentitzen dira ikastetxean.
- 3.3.3.** Ikastetxeko ikasleen artean norbere burua hobetzeko gogo zintzoa dago.
- 3.3.4.** Informazio bide eta baliabide eraginkorrak daude, ikasleek elkarbizitza eta diziplina arauak esanguratsuki ezagutu ditzaten.
- 3.3.5.** Ikasleen artean, bortizkeria fisiko edo moralik gabeko errespetuzko giroa dago, bai pertsonetik eta bai baliabide materialekiko.
- 3.3.6.** Gatazkak edo diziplina arazoak sortzen direnean, ikastetxeak hezkuntza neurri eraginkorrak hartzen ditu.
- 3.3.7.** Elkarbizitza arazoak, ikaslearen eta gatazkan zerikusia duten beste guztien ikuspuntuak aintzat harturik konpontzen dira.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
3.3.1.							
3.3.2.							
3.3.3.							
3.3.4.							
3.3.5.							
3.3.6.							
3.3.7.							

3.4. KALITATE IRIZPIDEA

Ikasgelako giroak ikasleen kalitatezko lana bultzatzen du.

- 3.4.1.** Irakasleek ikasleen arazoei jaramon egiten diete eta harremanak konfiantzazkoak eta hurbilak izan daitezten ahalegintzen dira.
- 3.4.2.** Irakasleak ordena eta diziplina jartzen ditu ikasgelan eta horrek lan egiten eta ikasten laguntzen die ikasleei.
- 3.4.3.** Ikasgelako giroak ikasleen sormena bultzatzen du, homogenotasunetik eta ohikeriatik aldentuz.
- 3.4.4.** Ikasle guztien ikas-irakaste prozesuan eraitza onak lortzeko interes argi eta nabaria dago irakasleen aldetik.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
3.4.1.							
3.4.2.							
3.4.3.							
3.4.4.							

4. EREMUA

TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

Ikasleak eta familiak gure lanaren objektu nagusia direla aintzat hartuta, eremu honetan tutore lanarekin, tutoretza planarekin eta orientazio akademiko profesionalarekin lotura daukaten kontu guztiak ebaluatuko dira. Ikuspegi honetatik, ekintza ikasle eta familiei bideraturik dago helburu bikoitzaz: egoera akademikoaren edo etorkizun profesionalaren inguruko erabakiak hartzen lagunduko dien informazioa eskaintzeko, eta etxeetan ikaste prozesuan inplikatu daitezzen lortzeko.

4.1. KALITATE IRIZPIDEA

Bada ekintza plan bat ikasle guraso eta ikasleen beharrezan erantzuteko.

- 4.1.1.** Tutoretza Plana tutore guztien artean adostu da eta ikasle eta sendien itxaropen eta premiei erantzuten die.
- 4.1.2.** Ikasleek orientazioari buruzko informazio bideak ezagutzen dituzte eta behar dutenean orientazio zerbitzura jotzen dute beren gogoz.
- 4.1.3.** Planak ikasle bakoitzaren premietara egokitzen du hezkuntza, curriculumean eta metodologian behar diren egokitzapenak eginez.
- 4.1.4.** Planak pertsona bere esparru guztietan hezten laguntzen du (pertsonalean, sozialean, afektiboan, moralean, kognitiboan eta fisikoan).
- 4.1.5.** Planak heldutasun pertsonalerako prozesuak bultzatzen ditu eta norbere nortasuna eta balio-sistemak garatzen laguntzen du.
- 4.1.6.** Ikasleek euren bizitzan hautatzen joan behar duten heinean, erabakiak hartzeko heziketa ematen du.
- 4.1.7.** Ikasteko zailtasunei aurre hartzen ahalegintzen da, zailtasunak gertatzen direnean laguntza emateaz gain.
- 4.1.8.** Orientazio Departamentuak, ikasketei eta lan irtenbideei buruzko informazioa ematen die ikasleei eta familiei eta hauek nahiko pozik daude jasotzen duten orientazioarekin.
- 4.1.9.** Orientazio Departamentua beti dago prest konponbideak bilatzeko eta, egoeraren arabera, beharrezkoak diren ikastetxeko profesionalak inplikatzen.
- 4.1.10** Orientazio Departamentuak ikasleen datu banku bat du eta tutore eta irakasleen eskura dago.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
4.1.1.							
4.1.2.							
4.1.3.							
4.1.4.							
4.1.5.							
4.1.6.							
4.1.7.							
4.1.8.							
4.1.9.							
4.1.10.							

4.2. KALITATE IRIZPIDEA

Tutoretzak banan-banan hartzen ditu kontuan ikasleak.

- 4.2.1. Norbere kontzeptua lantzen da, ikasleak bere nortasuna garatu eta bere burua onar dezan.
- 4.2.2. Arreta jartzen zaie ikasle bakoitzaren ikasteko premia, interes eta ezaugarriari.
- 4.2.3. Tutoretza ikaslearen garapen emozionalaz arduratzen da eta komunikaziorako eta pertsonen arteko harremanetarako trebetasunak landuz bultzatzen du garapen hori.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.2.1.							
4.2.2.							
4.2.3.							

4.3. KALITATE IRIZPIDEA

Tutoretzak talde moduan hartzen ditu kontuan ikasleak.

- 4.3.1. Ikasleek taldean lan egiten ikasten dute.
- 4.3.2. Ikaskideen artean lankidetzat dago.
- 4.3.3. Pertsona arteko harremanetan zein arlo akademikoan, integrazio soziala dago.
- 4.3.4. Ikasgelako taldean parte hartzeko jarrerak daude.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.3.1.							
4.3.2.							
4.3.3.							
4.3.4.							

4.4. KALITATE IRIZPIDEA

Tutoretza erakunde mailan planifikatzen da.

- 4.4.1. Badago ardura ikasleek ikastetxean duten bizi-kalitateaz eta ongizateaz.
- 4.4.2. Ikasleei laguntza eta arreta eskaintzen zaie ikastetxeko giroaren kalitatea zainduz.
- 4.4.3. Ikasleek ikastetxeko bizimoduan parte har dezaten bultzatzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Adostasun Emitza
4.4.1.							
4.4.2.							
4.4.3.							

4.5. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeko tutoretzak eraginkortasunez burutzen dira, ondo antolatuta daude eta tutoreak ondo erlazionatzen dira irakasle, ikasle eta sendiekin.

- 4.5.1. Tutoreak aldizka informatzen ditu ikasleak eta beraien sendiak irakasgaiez, lan planaz eta promozio eta ebaluazio irizpidez.
- 4.5.2. Tutoreak badaki gurasoen batzar orokorrak eta banan-banako bilerak ondo eramaten.
- 4.5.3. Tutoreak ebaluazio bilera ondo prestatzen eta koordinatzen du eta emaitzak ikasleen aurrean aurkeztu eta komentatzen ditu.
- 4.5.4. Tutoreak ikasleak orientatzen ditu ikasketa prozesuan aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzeko eta ikasteko denbora egoki antolatzeko.
- 4.5.5. Zikloan eta etapan zehar, ikasle bakoitzaren garapen pertsonalaren eta ikas-prozesuaren jarraipena egiten da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.5.1.							
4.5.2.							
4.5.3.							
4.5.4.							
4.5.5.							

4.6. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeak ikasleen etorkizun pertsonal eta profesionala baldintzatuko duten hezkuntzako ibilbideak eraginkortasunez diseinatzen ditu eta guraso zein ikasleei horiei buruzko informazioa eskaintzen die.

- 4.6.1. Ikasle eta sendiek denbora nahikoz ezagutzen dituzte ikastetxeak eskaintzen dituen prestakuntza-ibilbideak.
- 4.6.2. Zikloa amaitzean berariazko proba batzuk egiten dira ikasleak orientatzeko.
- 4.6.3. Ikasleek eta sendiek ikastetxeak orientatzeko eta laguntzeko dauzkan baliabideei buruzko informazio nahikoa daukate.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.6.1.							
4.6.2.							
4.6.3.							

5. EREMUA

CURRICULUMA

Eremu honek hiru espazio hartzen ditu: a) irakaskuntza prozesuaren espazioa, plangintzan, programazioan eta irakasleak ikasgelan egiten duen lanean zehazten dena; b) ikasleen ikas-prozesuaren espazioa, ikasleak, ikasgelan zein etxean duen inplikazioan zehazten dena; c) ikas-irakasteko estrategiei buruzko ikerketa eta berrikuntzaren espazioa.

5.1. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeko irakasleek taldean prestatzen dute ikas-irakaste prozesuen plangintza, departamentuetan eta arloen koordinaziorako egitura bertikaletan.

5.1.1.	Jardueren sekuentziario eta tenporalizazioa egokia da eta ikas-irakaste prozesuari koherentzia eta kongruentzia ematen dio.	
5.1.2.	Irakasleak ikasleen alde aurreko ezagutzen arabera antolatzen du ikas-jarduera.	
5.1.3.	Jarduerak, ikus-entzunezko baliabideen, ordenagailuen, eta orokorrean teknologia berrien erabilerari loturik planifikatzen dira.	
5.1.4.	Departamentua benetan koordinatzen da maila bereko taldeen kalifikazio eta ebaluazio irizpideak finkatzeko orduan.	
5.1.5.	Departamentu bakoitzak gutxieneko helburuak eta ikasleak kalifikatzeko irizpideak adostu ditu, eta horien jarraipena egiten du.	
5.1.6.	Ikasturtearen hasieran programazioak berrikusi egiten dira, aurreko ebaluazioan lortutako emaitzetara egokitzeko.	
5.1.7.	Departamentuek, ikasgelako aniztasuna eta ikasleen berezitasunak kontuan izanik, curriculumaren benetako egokitzapenak egiten dituzte.	
5.1.8.	Hurrengo ikasturterako hobetzeko asmoz, departamentu bakoitzaren jarduera eta funtzionamendua eta ebaluazioen emaitzak ebaluatzen dira.	
5.1.9.	Irakasleek beren ezagutza eta esperientziak lankideekin konpartitzen dituzte.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaitza globala	Emaitza adostua
5.1.1.							
5.1.2.							
5.1.3.							
5.1.4.							
5.1.5.							
5.1.6.							
5.1.7.							
5.1.8.							
5.1.9.							

5.2. KALITATE IRIZPIDEA

Irakasleek ikasleak beren ikas-prozesuan inplikatzan dituzte, adimenez eta gizatasunez helduz joan daitezzen.

- 5.2.1. Irakasleek asko espero dute ikasleen ikasteko gaitasunetik.
- 5.2.2. Irakasleak ikasle bakoitzaren ikas-prozesuarekin konprometitirik daude.
- 5.2.3. Oinarrizko trebetasunen irakaskuntza azpimarratzen da ikasketen arlo guztietan, hizkuntzan eta matematikan bereziki.
- 5.2.4. Lan egitera eta ikastera bultzatzen duen giro serio eta errespetuzkoa dago.
- 5.2.5. Ikasleak ikas-prozesuan inplikatzan dira, etxerako bidaltzen zaizkien lanak eginez.
- 5.2.6. Irakasleek ikasteko interesa erakusten dute, proposatzen zaizkien borondatezko ekintzetan parte hartuz.
- 5.2.7. Irakasleek nabarmen hobetzen dituzte euren lanen aurkezpena eta idatzizko zein ahozko adierazpena.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
5.2.1.							
5.2.2.							
5.2.3.							
5.2.4.							
5.2.5.							
5.2.6.							
5.2.7.							

5.3. KALITATE IRIZPIDEA

Ikasleen aniztasuna kontuan harturik, irakasleak egunean daude, hezkuntzako teknologian, metodologian, eta edukietan.

- 5.3.1. Irakasleek ikasketen helburu argiak formulatzen dituzte elkarren artean koordinaturik.
- 5.3.2. Pentsatzeko gaitasunak (analisi, ulermena, sintesia, adierazpena, balorazio kritikoa etab.) garatzen laguntzen duten material eta estrategiak erabiltzen dira.
- 5.3.3. Klasearen erabilera egokia egiten da, denbora eta egitekoa kontrolatuz.
- 5.3.4. Irakasgaietan eremu zailak aurreikusten dira eta ikasle gehienek ikasi ahal izateko bideak bilatzen dira.
- 5.3.5. Irakasleek arrakastaz antolatzen dituzte ikasteko zailtasunak dauzkaten ikasleentzako errekonpertzeko ariketak.
- 5.3.6. Klaseak prestatzeko orduan material desberdinak bilatzen dira, ikasleentzat arinagoak eta ulergarriagoak izan daitezzen.
- 5.3.7. Irakasleak darabilen metodologiak, ikaslea era aktiboan inplikatzan du ikas-irakaste prozesuan.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
5.3.1.							
5.3.2.							
5.3.3.							
5.3.4.							
5.3.5.							
5.3.6.							
5.3.7.							

5.4. KALITATE IRIZPIDEA

Irakasleek, beren departamentuetan, ikasleen jarraipen eta ebaluazio prozesuak antolatzen dituzte eta emaitza onak lortzen dituzte.

- 5.4.1.** Ikasleen aldetik, iraupen tasa altua ematen da (bertan behera ez uztea).
- 5.4.2.** Kalifikazioek emaitza onak islatzen dituzte, hau da, eskolako errendimendu maila altua.
- 5.4.3.** Etapa edo ziklo bakoitzaren amaieran, ikasle gehienek aurreikusitako oinarriko trebetasunak erdiestea lortzen da.
- 5.4.4.** Etapa edo ziklo bakoitzaren amaieran, irakasleek norbere estima eta kontzeptu positiboa erdiestea lortzen da.
- 5.4.5.** Irakasleak gutxieneko edukien eta kalifikazio nahiz promozio irizpideen berri ematen die ikasleei.
- 5.4.6.** Irakasleek, gaitasun intelektualen eta prozedurazko trebezien ikaskuntza neurtzen duten teknika eta metodo ezberdinen bitartez ebaluatzen dute ikasleen lana eta errendimendua.
- 5.4.7.** Zalantzak argitzeko eta erronka intelektualak planteatzeko asmoz, irakasleek ikasleei galderak egiteko eta ikasleen galderei erantzuteko denbora hartzen dute.
- 5.4.8.** Irakasleak argibide zehatzak ematen ditu ikaslearen lan bakoitzean, ikasleari lana hobetzen eta okerrak zuzentzen laguntzeko.
- 5.4.9.** Funtsezko topiko edo edukiak bereiztu egiten dira sakontasunez lantzeko.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
5.4.1.							
5.4.2.							
5.4.3.							
5.4.4.							
5.4.5.							
5.4.6.							
5.4.7.							
5.4.8.							
5.4.9.							

6. EREMUA

FAMILIA ETA INGURUA

Ikastetxeko bizitzaren eremu honetan famili eta gizarte ingurua dugu gogoan. Batetik, ikastetxeak sendiekin duen harreman mota, bai maila formalean, horretarako ezarritako egituren bitartez, bai maila informal edo pertsonalagoan; eta bestetik, ikastetxeak inguruaren parte diren erakundeekin dituen harremanak (gizarte erakundeekin, udaletxeekin, administrazioarekin, irakasleentzako laguntza eta prestakuntza zentroekin, GKEekin, hornitzaileekin etab.).

6.1. KALITATE IRIZPIDEA

Sendiak eskolako bizitzan inplikatzeko dira, euren seme-alaben hezkuntzaren alde irakasleekin batera lan egin dezaten.

- 6.1.1.** Ikastetxeak bertako bizimodurako lagungarriak diren jarduerak egitera animatzen ditu gurasoak.
- 6.1.2.** Sendiekiko harremanak sarri izaten dira bide formal zein informalean bitartez.
- 6.1.3.** Ikastetxeak seme-alabei irakasten zaiena argi ezagutu eta ulertzen laguntzen die gurasoei (jerga teknikorik gabe).
- 6.1.4.** Gurasoekin harreman onak mantentzen dira.
- 6.1.5.** Etxeko lanen politika argia dago eta ondo azaltzen zaie ikasleei eta gurasoei.
- 6.1.6.** Gurasoei argi eta garbi adierazten zaie zer espero den euren seme-alaben ikasketatik.
- 6.1.7.** Ikastetxeak asmo eraikitzailez jasotzen dituzten sendien kezak eta erantzun positiboak ematen saiatzen da.
- 6.1.8.** Sendiekiko kidetasun politika bat eramatean da ikasleek etxean lan egin dezaten.
- 6.1.9.** Ikastetxeak gurasoei euren seme-alaben ikas-irakaste prozesuaren kalitateari buruzko iritzia emateko eskatzen die.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
6.1.1.							
6.1.2.							
6.1.3.							
6.1.4.							
6.1.5.							
6.1.6.							
6.1.7.							
6.1.8.							
6.1.9.							

6.2. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeak eskolaz kanpoko jarduerak eta kultur ekintzak bultzatzen ditu, eskolako curriculumara eta ikaslearen bizi-esperientzia integratzeko asmoz.

- 6.2.1.** Sendiak, irakasleak eta ikasleak era aktibo eta eraikitzailean inplikatzeko dira eskolaz kanpoko ekintzen antolaketan.
- 6.2.2.** Ikastetxeak ikasleak eratu eta animatu egiten ditu, urtean behin behintzat ekintza ludiko kulturalen batera joan daitezela.
- 6.2.3.** Ikastetxeak ikasleei eskaintzen dizkien ekintzetan, hezkuntzaren aldetik lortu beharreko helburuak eta ikasleek adinaren, inguruaren eta modaren arabera dituzten interesak uztartzen dira.
- 6.2.4.** Eskolaz kanpoko jarduerak, departamentu bakoitzeko programak eta iradokizunak aintzat hartuz diseinatu dira.
- 6.2.5.** Jarduerak antolatzeko orduan, natur eta kultur zikloak aprobetxatzen dira, ikasleek euren historiako gertakariekin, kulturarekin, hizkuntzarekin, folklorearekin eta ikastetxearekin atxikimendua izan dezaten.
- 6.2.6.** Ikastetxeak berriazko aurrekontua izendatzen du ekintza osagarriak, kulturalak eta eskolaz kanpokoak sustatu eta egiteko.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
6.2.1.							
6.2.2.							
6.2.3.							
6.2.4.							
6.2.5.							
6.2.6.							

6.3. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxeak lankidetzako harremanak ditu elkarteko beste erakunde batzuekin.

- 6.3.1.** Ikastetxeak eskolaz kanpoko jardura programa erakargarria aurkezten du eta inguruko erakundeekin laguntza eta lankidetzara lortzen du.
- 6.3.2.** Ikastetxeak ondo zehaztuta dauzka beste erakundeekin lankidetzara parametroak.
- 6.3.3.** Ikastetxeak irakasleekin positiboki baloratzen dituzte beste erakundeekin lankidetzara-harremanak.
- 6.3.4.** Ikastetxeak inguruko beste erakundeekin izandako lankidetzaren emaitzak ebaluatzen ditu aldizka.
- 6.3.5.** Ikastetxeak hitzarmen eta akordioak ditu inguruko beste ikastetxe eta kultur erakundeekin, ekintzen aukera zabala eskaintzeko ikasleei, haien interesak kontuan izanik.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
6.3.1.							
6.3.2.							
6.3.3.							
6.3.4.							
6.3.5.							

7. EREMUA

ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

Ikastetxearen funtzionamendu esparru hori zehaztuko duten alderdiek, honako hauek hartzen dituzte kontuan: ikastetxearen administrazio kudeaketa, finantza kudeaketa, ikastetxeko langileen kudeaketa (irakasleak zein AZPak), eta, azkenik, ikastetxeak eskaintzen dituen edo eskaini ditzaketen zerbitzuen kudeaketa eta administrazioa; esate baterako, jangela, garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak, eta bestelako zerbitzuak.

7.1. KALITATE IRIZPIDEA

Administrazio talde gaitua dago, eta burokrazia prozesuak eraginkortasunez eta bizkortasunez kudeatzen ditu.

7.1.1.	Ikastetxeko administrazio taldeak ikasleen familien eskaerak adeitasunez eta bizkortasunez erantzuten ditu.	
7.1.2.	Ikastetxeko administrazio prozesu nagusiak behar bezala dokumentaturik daude.	
7.1.3.	Hala behar denean, eta isilekotasunari eutsiz, erraza da ikastetxearen administrazioko dokumentazioa eskuratzea, euskarri materialean zein birtualean edo informatikoan.	
7.1.4.	Administrazioko arduradun bat dago, eta bere egitekoa ofimatikako lanak zuzendaritza taldearekin koordinatzea da.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa	Eraitza globala	Eraitza adostua
7.1.1.			
7.1.2.			
7.1.3.			
7.1.4.			

7.2. Kalitate irizpidea

Ikastetxearen finantza kudeaketak barne eragileen zein zerbitzu hartzaileen etorkizuna bermatzen du.

7.2.1.	Ikastetxeko arduradunek finantza iturriak dibertsifikatzen dituzte, aurreikusi ezin daitezkeen gertakariei, bere garaian, garaiz erantzun ahal izateko.	
7.2.2.	Finantza kudeaketaz arduratzen direnek epe ertaineko eta luzerako plangintza egiten dute, ikastetxearen behar materialak zein funtzionalak kontuan hartuz.	
7.2.3.	Ikastetxeko ekonomia batzordeak urteko aurrekontuen plangintzan parte hartzen du.	
7.2.4.	Irakasleek kudeaketa ekonomikoari buruzko behar adina informazio jasotzen dute, prozesu horien partaide sentitzeko nolabait.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa	Eraitza globala	Eraitza adostua
7.2.1.			
7.2.2.			
7.2.3.			
7.2.4.			

7.3. KALITATE IRIZPIDEA

AZP ikastetxeko bizimoduan inplkaturik sentitzen da, elkarrekin lan egiten dute eta agerikoa da lanean gustura daudela.

- 7.3.1.** Irakasleen eta AZPko langileen artean harreman ona dago.
- 7.3.2.** AZPren lan arloez erabakitzen denean, berauen partaidetza haundia da.
- 7.3.3.** AZP planteatzen diren hobekuntza egitasmoetan parte hartzeko eta laguntzeko motibatuta dago.
- 7.3.4.** Zuzendaritza taldeak modu egokian erantzuten dio AZPren formazio premiei.
- 7.3.5.** AZPk, zuzendaritza taldeak euren ahaleginak eta arrakastak aintzat hartzen dituela sentitzen dute.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
7.3.1.							
7.3.2.							
7.3.3.							
7.3.4.							
7.3.5.							

7.4. KALITATE IRIZPIDEA

Ikastetxearen funtzionamendurako eta bere etorkizuna bermatzeko funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuak eraginkortasun irizpidez kudeatzen dira, eta erabiltzaileen nahiak asetzen dituzte.

- 7.4.1.** Jangela, garraio eta ekintza osagarrien zerbitzuetako (halakoak dauden lekuetan) funtzionamenduaren irizpideen berri ematen zaie aurrez familiei.
- 7.4.2.** Sail edo departamentu batek diseinatzen, planifikatzen eta koordinatzen ditu aipatu zerbitzuak.
- 7.4.3.** Aldizka ebaluatzen da, bai zuzenean, bai zeharka, zerbitzuen (bulego, jangela, garraio, zerbitzu osagarriak, etab...) eta hartzaileen (guraso zein ilasleak, besteak beste) arteko kalitate harremana, eta, horretarako, asebetetze maila zein emaitza ekonomikoak hartzen dira kontuan.
- 7.4.4.** Hornitzaileekiko harremana erraza da, eta irizpide profesionalez egiten da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
7.4.1.							
7.4.2.							
7.4.3.							
7.4.4.							

AUTOEBALUAZIO TAULA

Jarraian, datuak biltzea eta lehentasunak ezartzea erraztuko duten bi tresna aurkezten dira.

IKASTETXEA.....

Data

EREMUA..... Adierazle zenb.

ARLO SENDOAK	ERAKUSGARRIAK

HOBETU BEHARREKO ARLOAK	ARRAZOIBIDEAK

AUTOEBALUAZIO TAULA

Jarraian, datuak biltzea eta lehentasunak ezartzea erraztuko duten bi tresna aurkezten dira.

IKASTETXEA.....

Data

EREMUA..... Adierazle zenb.

ARLO SENDOAK	ERAKUSGARRIAK

HOBETU BEHARREKO ARLOAK	ARRAZOIBIDEAK